Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero 405

Irailak 15, 2021

2 Irun atzo, Irun gaur
3 Berri laburrak
4 "M" film laburra
5 Uikan dantza taldea
6 Tucar.net
7 Auntxa Trikitixa Eskola
8 Kirolak: Txingudi Korrika
9 Kirolak: Santiagotarrak
10 Haurtxokoak
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak
13 Beti gazte: A&B shows
14 iGazte
15 Agenda

caser residencial

INFORMA ZAITEZ!

Adineko pertsonentzako egoitzak

EGONALDI IRAUNKORRAK
ALDI BATERAKO EGONALDIAK
- FAMILIAREN ATSEDENERAKO
- ERREABILITAZIO. OPERAZIO ONDOKOAK
- GAIXONDOKOAK

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Pirineo Atlantikoko Departamenduarekin hitzartuak

Caser Anaka - Anaka kalea 8- IRUN - 943 66 77 80. Caser Betharram - Zubieta kalea 161 - HONDARRIBIA 943 64 71 69

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

1921eko irailaren 11n argitaratutako "El Bidasoa" aldizkariak orain dela 100 urte hirian albiste ziren gertakariak biltzen ditu. Aldizkariaren hasieran Francisco Rodríguez Gal eta María del Rosario de Menarguez y Vera irundarren heriotzaren berri ematen da. Jarraian, idatzi luze batean Horacio de Sarasquetak gerrako bizipenetan oinarritutako ipuin bat kontatzen du. Hurrengo idatzian hiriko eraikin ezagunetan kokatutako erlojuen artean dagoen ordu-aldea aipatzen da, guztiek ordu okerra dutela salatzeko.

Kirol kronikan Amuteko zelaiko konponketa lanak, Espainiak Belgikaren aurka jokatuko duen partiduaren data, Marokon gerran borrokatzeko deitu dituzten kirolarien zerrenda eta Chilen Legarreta jokalariaren taldeak lortutako garaipena aipatzen dira. Ondoren, Kale Nagusian San Ramón jaiak ospatzeko antolatutako dantzaldiaren kronika irakur daiteke. "De todo un poco" atalean San Juan Harri zutabearen toki aldaketa, tranbiaren ibilbidea errazteko Colon Pasealekuan moztutako zuhaitzak, Mendeluko estolderia arazoak eta Bandako kontzertuak oztopatzen dituzten gaztetxoen jokabideak aipatzen dira. Irundik Lesakara egindako txango bat laburbiltzen duen testuaren ondoren, irundar asko Donostian Afrikara borrokatzera joandako soldaduen agurra ikustera joan zirela kontatzen da.

Aldizkariaren hirugarren orrialdean azaltzen denez, mutil gazte asko hurbiltzen zen Irunera igandeetan, Pi eta Margall plazako dantzaldira neskekin dantzatzeko. Adierazten denez, suziri batek iragartzen zuen gaueko azken trenaren irteera. "Notas Municipales" atalean azken udal bilkurako erabakiak laburbildu ostean, Noticias atalean azken albiste laburrak argitaratzen dira, "Ecos de Sociedad" atal aski ezagunarekin aldizkariaren 315. zenbakia amaitu aurretik.

Argazkiak:

57745: Kale Nagusiaren bista (1916 baino lehenagokoa da).

30103: San Juan plazaren eremua, 1936ko irailaren hasierako sutearen ondoren.

40396: Merkantziaz eta eraikuntzako materialez betetako gabarren iritsiera Mendeluko eremura, 1905. urtea baino lehenago hartutako irudian.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Administrazioa:
Joseba Arozena

Zuzenketa:
Aitor Lete

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Irungo Udalak Gabonetako biziberritze-kanpaina historikoa aurkeztu du

Irungo Udalak Gabonetan hiria eta merkataritza biziberritzeko asmoz antolatzen ari den Gabonetako kanpaina bereziaren planak azaldu ditu. Merkataritza Mahaiarekin batera antolatutako programazioa da. Aurkezpenean, udal ordezkariez gain, Bidashop, Mugan eta Denok Bat elkarteetako ordezkariek, bai eta Ficoba azokaguneko ordezkariek parte hatu dute.

José Antonio Santano alkateak horrela deskribatu du proiektuaren helburua: "Xedea hiria biziberritzea da, bai eta une zailak bizitzen ari diren sektoreei babesa ematea ere, hala nola merkatari txikiei eta ostalariei". Horrela, pandemia egoera ahaztu gabe, eta beharrezko segurtasun neurri guztiak kontuan izanda, inoiz ez bezalako programazio iragarri da.

Irungo Gabonetan ohikoak ziren jardueren espiritua berreskuratu nahi da : izotz gainean patinatzeko pista, atrakzioak eta kaleko animazioa. Aurten, ordea, formatu berrituan eskainiko da, eta aurrekontua bikoiztu egingo da. Izotz-pista Ficoban kokatuko da eta izotz sintetikoko Espainiako instalaziorik handienetako bat izango da, 1.000 m2 ingurukoa. Helburua da pista hori elementu erakargarri bat izatea irundarrentzat baina baita Euskadiko eta Frantziako herritarrentzat ere, instalazio ezin bereziago bat izango baita. Hortik aurrera, bisitariak hiri osoan programatu diren gainerako jardueretara joan ahalko dira, eta egun berezi batez gozatu ahalko dute Irunen erosketak egiteko edo aisialdirako.

Tokiko merkatari eta ostalarien Gabonetako merkatua indartu egingo da postu gehiago jarrita, hau da, hogei bat postu. Aurten ere Zabaltza plazan izango da, 2020ko edizioak izan zuen harrera ona ikusita. Iaz bezala, argiztapen berezia eta berritua izango du, Gabonetako argietarako aurrekontua aurreko urtekoaren bikoitza izango delako.

Ibilbide bat Irundik barrena

Horrez gain, jende guztiarentzako proposamenak egongo dira: txirrista erraldoi bat Pio XII plazan, 2017an jarri zenaren antzekoa, eta Gabon kutsuko beste instalazio bat Sarjiako parkean, herrixka txiki bat, hain zuzen ere. Hiriko puntu desberdinetan jarriko dira, eta asmoa da Gabonetako giroa hiri guztira zabaltzea eta ibilbide bat sortzea familia guztiarentzako proposamen horiek lotuz: Ficoban hasi eta Sarjiara, Zabaltzatik eta Pio XII.etik pasatuta. Haurrak izango dira protagonistak, haientzat pentsatutako ekimenekin. Gainera, familia eta lana uztartzen lagunduko dute eta bateragarri egingo dute haurrek gozatzea eta tokiko establezimenduetan egitea Gabonetako erosketak.

Nabarmendu behar da, horrez gain, urtero bezala kaleko animazioa izango dela, oraindik definitu gabe dauden ekitaldi ibiltariekin. COVID-19aren bilakaeraren araberakoak izango dira, eta hiriko merkataritza-eremuak dinamizatzeko balioko dute. Programazio horrekin batera, kultur agenda sendo bat izango da hiruhileko osoan, urritik hasita eta Gabonetako programaziora iritsi arte. Musika eta antzerkia izango dira kultur agenda berezi horretako protagonistak.

Irailaren 18an Ribera feriaren 6. edizioa egingo da

Irailaren 18an, larunbatarekin, Ribera feriaren seigarren edizioa egingo da. Feria horrez gain, arte garaikideak pisu handia izango du Irungo Udaleko Kultura arloak udazkenean zehar garatuko dituen ekitaldietan. Dagoeneko martxan dira Ribera bekak eta artistentzako laguntzak.

Ribera programaren xedea da arte garaikideko proposamenak eta memoria historikoa uztartzea, bai eta uraren kultura ere, hiriko harreman sozialetan duen eragina kontuan hartuta. Diziplina askotako prozesu artistikoak barnebiltzen ditu eta baterako sorkuntzaren, parte-hartzearen, ikerketaren eta esperimentazioaren alde egiten du. Juncal Eizaguirre Kultura arloko ordezkariak nabarmendu duenez, "segurtasun-neurriekin bada ere, hirian kultura sustatzen jarraitzen dugu, aire zabalean, egungo egoerari egokitutako edizioekin".

Aurtengo edizioak herritarrei irekitako jarduerak eskaintzen ditu Osinbiribileko bidegorrian zehar, saihesbidearen eta Santiago kalearen arteko bidegurutzearen azpiko zubitik Artiako kanaleraino. Aurten, entzutea izan da artistek landu duten kontzeptua, pertsonen eta ingurunearen arteko harreman gisa ulertuta. Jardueren bidez, Bidasoaren erribera partekatzearen garrantzia nabarmendu nahi da, belarriak, ulermena eta lurraldearekiko loturak entrenatzeko.

Jarduerak goizeko 10:00etan hasiko dira Bigarak eskainiko duen Palindrom tailerrarekin. 11:00etan Inko Martinen eskutik, "Ertzak" soinu bidezko fikzio-lanaren bitartez, irrati-performancearen txanda izango da. Ordubete geroago, 12:00etan Idoia Zabaletak, Sofía Asenciok, Chus Dominguezek eta Tomás Aragayk "Natura eta haren dardara" paseo gidatua zuzenduko dute. Azkenik, 13:00etan Maite Arroitajauregik gidatutako "Belarriz su(s)matu" tailerrak soinu-paisaia inguruan etengabe hazten ari den musika-pieza bat dela ulertzeko aukera emango du.

Egun osoan, gainera, «Oroimenaren hormak» izenburuarekin, esku-hartze artistiko bat egingo da saihesbideko zubiaren azpian dagoen horman, aurrekoetan bezala. Oraingoan, Maialen Arocena eta Jabier Rodríguez izango dira arduradunak. Riberaren programaren parte ez bada ere, feria horren espirituarekin bat egiten du Etorbideko zubian 19:30ean eskainiko den «Dantz Point» musika elektronikoko ikuskizunak. Sarrera librea da, baina lekuak mugatuak dira, ezarritako segurtasun- eta higiene-neurriak direla eta.

Antolaketa

Jarduera guztietan, parte-hartzaileak banatuta egongo dira, neurri hauek errespetatu daitezen: maskararen erabilera, eskuak garbitzea, segurtasun distantzia, etab. Tailerretan parte hartzeko, aldez aurretik izena eman beharko da. Irrati-antzerkiaren kasuan, berriz, ez da izenik eman behar: aulkiak jarriko dira eta nahi duenak parte har dezake, leku guztiak bete arte. «Natura eta haren dardara» jarduerari dagokionez, aire zabaleko paseo edo ibilaldi gidatu bat izango da, Bidasoaren ertzetik, eta parte hartzeko izena eman behar da aldez aurretik.

Beka gehiago

Era berean, Kultura arloak jakinarazi du Ribera beken ekimena ere aurrera doala. Ildo horretan, Ribera 2021 emaitzak aurkezteko agertokia izango da. Halaber, Kultura arloak jakinarazi du 2021eko deialdia irekita dagoela. Ekimenean bi beka emango dira: bakoitzak 9.000 euroko zuzkidura du eta 9 hilabeteko iraupena izango dute. Bestetik, 2021eko artistentzako laguntzen deialdia ere argitaratu da. Programa berezi horren bidez, sorkuntza artistikoa sustatu eta babestu nahi da Bidasoaldean, interes berezia jarrita mugaz gaindiko parte-hartzean.

ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

Olaizola INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Irailaren 18an estreinatuko da Trikuharri elkarte soziokulturalak ekoitzitako "M" film laburra

Argazkia: Estudio Gover

Trikuharri elkarte soziokulturalak "M" film laburra estreinatuko du irailaren 18an. Estreinaldia Amaia kultur zentroan egingo da, arratsaldeko 19:00etan. Film laburra "Mari eta bere lagun magikoak" liburuan oinarrituta dago. Sarrerak Irungo Udalaren webgunean edo Irungo turismo bulegoan eskura daitezke.

Film laburraren gai nagusiak mitologia eta ingurumena dira, Trikuharri elkartearen lana euskal kulturan oinarrituta baitago. Film laburrak Mari jainkosak Anboto eta Landarbaso artean egin zuen bidaia kontatzen du. Bidaia horretan, Marik Basajaun, Tartalo, Galtzagorriak, Lamiak eta beste hainbat pertsonaia ezagutuko ditu. Bestalde, ingurumenaren egungo egoera aipatzen da eta Marik gaur egungo egoera zeinen larria den azaltzen du. Horrela, ingurumena zaintzea ezinbestekoa dela aditzera eman nahi da, etorkizun osasuntsu eta oparoa izateko. Era horretan, erretako mendiak, zikinkeria edozein bazterretan edo kutsadura-mailak gora egitea saihestu nahi da. Trikuharri elkarteak garrantzi handia ematen dio ingurumenaren kontserbazioaren gaia haurrekin zein helduekin jorratzeari. Txemi Moreda Artolak adierazi duenez, "talde txiki bat gai honen inguruan kontzientziatzea lortzen badugu, pozik egongo gara".

"M" film laburra grabatzeko prozesua ez da erraza izan, neurri handi batean pandemiagatik eta orduan indarrean zeuden murriztapenengatik baldintzatuta egon baita. Grabaketarako ia sei hilabete behar izan ditu elkarteak, itxitura perimetralek edo talde txikiek prozesua zaildu baitute. Zenbait sekuentziatan, Akelarrea kasu, 4 pertsona baino gehiagok parte hartu behar zutenez, zailagoa izan da grabaketa antolatzea. Kasu horretan, adibidez, Txemik onartu duenez errazagoa izan zen, sorginak interpretatzen zituzten aktore gehienek txertoa jarrita baitzeukaten. Dena den, filmaketetan pertsonen arteko distantziak errespetatzen ziren eta maskarak erabili dira. Txemi Moredak dioenez, "film laburraren grabazioa abentura bat izan da".

Txemi Moreda film laburreko zuzendariak adierazi duenez, "hasieratik oso argi nuen zein lekutan grabatu nahi nuen". Besteak beste, Irugurutzetako labeetan, Erlaitzen, Jaizkibelen eta Landarbason egin dira grabaketak. Janzkerari eta apaingarriei dagokienez, Trikuharrik hiru aldetatik jaso du laguntza. Alde batetik, honen guztiaren amaieran, ikasleen ebaluazio txiki bat egin nahi genuke, gure proiektuaren bidez zer ikasi duten jakiteko", azaldu du Txemi Moredak.

> "Film laburraren grabazioa abentura bat izan da"
>
> Txemi Moreda, "M film laburreko zuzendaria

Txemi Moredaren ama jostuna da eta laguntza handikoa izan da jantzien ekoizpenean. Bestalde, Trintxerpeko konpartsa batek asko lagundu die, garaiko jantziak utzi baitizkie. Azkenik, elkarteko kide den Isaren arrebak ere jantzien sorrera prozesuan lagundu die. "Hiru laguntza horiekin lan guztia aurrera ateratzeko gai izan gara", azaldu du Txemi Moredak.

Pandemiak grabaketa prozesua zaildu duen arren, ez du atzerapenik eragin film laburraren estreinaldiari dagokionez. "Zein egoeratan geunden jakinda, ez dugu film laburra estreinatzeko epemugarik finkatu nahi izan", azaldu du zuzendariak. Helburu bakarra Ikuska Pasaiako Badiako Film Laburren Nazioarteko lehiaketarako garaiz iristea zen.

M hizkia hiru zati dituen proiektu baten laburpena da, eta Mariren, mitologiaren eta mendien laburpena da. Mari oraindik garapen prozesuan dagoen jarduera bat da. Asmoa zera da, Mari bi pertsonaiarekin, asto batekin eta ardi batekin, harremanetan jartzea, datozen hilabeteetan garatuko ditugun elkarrizketak sortzeko. Mitologiaren barruan, dagoeneko argitaratu den ipuina dugu, eta Trintxerpeko estanko batean, Iparralde etorbideko "Papel y más" dendan, Kale Nagusiko "El baúl de las ideas" dendan eta Manolo tabernan eros daiteke. Azkenik, Mendiak film laburrari dagokion zatia izango litzateke.

Ipuina eta film laburra ahalik eta haur gehienengana iristea da asmoa, proiektuak zabalkunde handia izan dezan. Trikuharriren asmoa ipuina eta film laburra ikastetxeetan banatzea da. Haurrek ipuina kolloreztatu ondoren, film laburra ikustea eta eurek margotutako pertsonaiak nolakoak diren erakutsi nahi zaie. "Prozesu ezinbestekoa izan da. "Zinemaren edo interpretazioaren munduarekin zerikusirik ez duten pertsonak dira, baina eskatutako mailan egoten jakin dute". Film laburrean, trikuharri elkarteko kideez gain, bazkideen lagun eta senideek ere parte hartu dute proiektuaren berri izan ostean.

Adibidez, Maialen Barreiro Txemiren ilobak film laburrean parte hartu du eta Mariren pertsonaia interpretatu du, protagonistarena, alegia,. Barrez onartu du beti kasu egin behar izan diola osabari, bestela oso urduri jartzen baitzen. Maialen Barreirok kontatu duenez, "mendian hartualdi asko grabatu ditugu, pertsonaia mitologikoz inguratuta". Film laburreko protagonistak gaineratu du: "grabatzen hasten ginenean benetan oso ondo pasatzen genuen eta barre asko egin genituen". Maialenen kasuan, horrelako proiektu batean parte hartzen zuen lehen aldia zen, eta berriro egingo lukeela onartu du, "batez ere bere osabaren zuzendaritzapean bada".

Beraz, lankidetza izan da proiektua aurrera atera ahal izateko gakoetako bat. Aktore guztien lankidetza desinteresatuaz gain, Nayade abesbatzaren laguntza izan du Trikuharri taldeak, eta Libera British Choirrek film laburrean entzun daitekeen abestietako bat utzi du. Bestalde, Miren Echeveste arduratu da ipuinaren itzulpenaz eta David Alonso ilustratzaile lanetan aritu da.

Erdizka dauden ideiak

Ohi bezala, trikuharri elkarteak oraindik aurkeztu ez diren proiektuetan murgilduta jarraitzen du. Elkarteak beste bi ipuin argitaratzeko asmoa du. Bestalde, elkartea 2020an egin behar zen gaueko joko ospetsua estreinatzeko zain dago. Azkenean, badirudi jokoa 2022an egingo dela, data aldaketa txiki batekin; izan ere, uztailean egin beharrean, azaroko lehen egunetan egingo da seguraski, Hallowenekin bat egin dezan. Beraz, pandemiaren garapenak uzten badu, litekeena da laster Trikuharritik proiektu berriak aurkeztea.

Uikan Dantza: Inklusioaren gainetik aniztasuna bultzatzen duen proiektua

Hamarkada bateko ibilbidearen ondoren argia ikusten duen dantza taldea da Uikan Dantza. Gaur egun Eva Sánchezek, Miren Gómezek, Xabi Solanok eta Iratze Reciok osatzen dute konpainia, Nuria Perez koreografoak zuzenduta. Taldeak aniztasunaren, kulturaren eta artearen arteko loturak estutzeko helburua duela azaldu du Eva Sánchezek.

Nola sortu zen Uikan dantza taldea?

Uikan dantza taldea bere horretan hasi zen 2019. urtean, baina hamarkada bat lehenago elkarrekin lan egiten hasi ginen. Nik urte asko daramatzat aniztasunari laguntzeko lanean eta askoz lehenagotik dantzatzen. Une jakin batean, bi mundu horiek elkartu egin ziren. Gogoan dut bere garaian artearen gai osoa gustuko zuten mutil talde batekin dantza ikustera joan nintzela Dantza Hirian jaialdira. Bertan Miriam Arkaia zuzendaria ezagutzeko aukera izan genuen eta jaialdian parte hartzeko proposamena egin zigun. Geroago, sentsibilizazio-eskola batzuetan parte hartzeko aukera eman zigun eta sekulako esperientzia izan zen. Gazteak liluratuta geldituz ziren, eta horrela proiektu honi jarraitutasuna emateko aukera ikusi genuen. Orduan Miren Gómezekin hitz egiteko unea zela erabaki nuen eta pertsona horientzako dantza klase iraunkor batzuk antolatzeko aukeraz hitz egin genuen. Klasera joaten hasi ginen eta dena forma pixka bat hartzen hasi zela ikusi genuen. Orduan koreografia bat muntatzeko eta eszenan egiteko urratsa ematea erabaki genuen.

Nork lagundu zizuen konpainiaren eraketa prozesuan?

Handik aurrera dena handitzen joan zen, eta urte batzuk igaro ondoren, Kukairekin harremanetan jarri ginen, sentsibilizazio-ekintza batzuk ere bazituelako. Mirenen eskolez gain, haiekin eskolak hartzen hasi ginen. Horri esker ezagutu ahal izan genuen Nuria, gaur egun gure irakaslea eta ikaskidearen zuzendaria dena. Xabier Solano ere modu berean ezagutzeko aukera izan genuen. Konturatu ginen talde horrekin eszenatoki batera igotzeko esperientziak bete egiten gintuela denok, eta horrela erabaki genuen konpainia osatzeko jauzia egitea. Nagore Martinezi aipatu genion gure ideia, garai hartan produkzio arduraduna eta berak lagundu zigun guztian. Oso modu naturalean, konturatu ginenerako lagun bihurtu ginen. Asko lagundu ziguten udaleko kulturatik, eta proiektua aurkeztu genuen, konturatu baikinen jende askok dantzatu nahi zuela eta orain arte ez zuela aukerarik izan. Horregatik, ikaskideaz gain, interesgarria iruditu zitzaigun eskolak eskaini ahal izatea. Tailer inklusiboak antolatu nahi izan genituen mundu guztia dantzatzera animatzeko.

> "Edonori dantzaren munduan murgiltzeko aukera eskaini nahi diogu"
>
> Eva Sánchez, Uikan dantza

Nola definituko zenuke lantzen duzuen dantza mota?

Dantza garaikidean oinarritzen da. Uikan dantza osatzen dugunok hizkuntza eta ibilbide desberdinetatik gatoz, baina esan dezakegu gure baitan hori dugula helburu, hau da, aniztasuna: gorputz desberdinekiko errespetua, dantza mota desberdinak... Hala ere, dantza garaikidea oinarri hartuta lan egiten dugula esan dezakegu.w

Udaletik antolatutako Kultura KM0 programak zuen lana ikustarazteko aukera eman dizue?

Bai, egia esan. 2019an hasi zen gure ibilbidea, eta gure proiektuaren barruan hainbat ideia genituen, pandemiaren erruz baztertu behar izan genituenak. Denok konfinatu gintuzten, eta konpainia egonkorrentzat egoera zaila izan bazen, imajinatu jaio berria zen gurea bezalako talde batentzat. Shocka gainditu ondoren, eskolak online hartzea erabaki genuen, tailerrak antolatuz eta beste hiri batzuetan zeuden profesionalekin harremanetan jartzeko aukera ere izan genuen. Klaseetara itzulti ginenean, Kultura km0 programaren berri izan genuen. Berriz martxan jartzeko bultzada bat izan zen eta oso eskertuta gaude horregatik.

Junkal plazatxoan eskainitako emanaldiak Gizakia izena du. Zertan datza?

Ikuskizuna aniztasunari buruzko aurretiko lan batetik abiatzen da. Eszenako gorputz eta pertsonalitate desberdinez hitz egiten du. Ikuskizuna aniztasunari buruzko aurretiko lan batetik abiatzen da. Eszenako gorputz eta pertsonalitate desberdinez hitz egiten du. Horretarako, jaiotzaz hitz egiten hasten da, une horretan denok berdinak baikara. Izenburuak, Gizakia, izateari egiten dio erreferentzia, eta bizitzan aurrera egin ahala, batzuetan banandu egiten garela azaldu nahi du. Dantzan, ordea, homogeneizaziorako joera handia dago, eta guk kontrakoa bilatzen dugu, ezberdintasunak balioetsi nahi ditugu. Diferentziek duten balio eszenikoa azpimarratu nahi dugu.

Uikan dantzak harago joan nahi du eta horregatik orain proiektu pedagogiko baten garapenean murgilduta zaudete, ezta?

Uikan dantza konpainia proiektu artistiko bat da. Zeharka beste bide batzuk lantzeko beharra ikusten dugu, gure azken helburua lankidearen, tailerren eta aipatu duzun proiektu pedagogikoaren bidez aukerak sortzea baita. Miren Gomezek astero eskaintzen ditu eskolak bere estudioan, baina beste urrats bat eman nahi dugu. Horregatik, datorren urtean proiektu pedagogiko batekin hasi nahi dugu, eta oraindik ezin dut xehetasun askorik eman, ez baitago erabat itxita. Gure asmoa haur txikiei eskolak ematea da, hau da, dantzarako hastapen-eskolak ematea Ainhoa Dantza Akademiarekin elkarlanean. Helduentzako dantza eskolez Miren Gómez arduratuko litzateke. Gainera, nerabeentzako eskolak eskaintzea ere gustatuko litzaiguke. Horrela, era guztietako adinak hartuko genituzke. Inklusioa bultzatu nahi dugu, oso aberatsa iruditzen baitzaigu pertsona guztientzat. Oparia da ingurune ezberdin batean mugitu ahal izatea. Proiektu hau aurrera eramatea kostatzen ari zaigu, baina ziur gaude pixkanaka gure izena ezaguna egingo dela. Gustatuko litzaiguke etorkizunean dantza-eskoletan aniztasun gehiago egotea, orain arte aukera hori izan ez duten pertsonei aukera hori emateko.

Horretaz gain, zuen dantza taldeko kide kopurua handitzea gustatuko litzaizueke?

Bai, hori da gure proiektu handietako bat eta prozesu bat beharko da horretarako. Sevillako Danza Mobile taldea erreferente bat da guretzat, konpainia bat baita eta gureak bezalako balioak dituen eskola bat ere baitute. Dantza inklusiboko konpainia bat da, baina guk nahiago dugu aniztasuna bezalako terminoak erabiltzea. 20 urte daramatzate horretan, baina gure ideia oso antzekoa da: edonori dantzaren munduan murgiltzeko aukera eskaini nahi diogu.

Francisco Cornejo, Tucar.net autoeskolako arduraduna:

“Autoa %98ko desgaitasun fisikoa duten pertsonek gidatu ahal izateko egokitua dago”

Tucar.net Irungo Eliza kaleko 4. zenbakian, San Juan plazatik oso gertu, bulegoa duen autoeskola da. Autoeskolak gidabaimena lortzeko aukera ematen die desgaitasun fisikoren bat duten pertsonei. Gidabaimenaren zati teorikoa ikasle guztientzat berdina bada ere, Tucar.net autoeskolak ezgaitasun desberdinetara erabat egokitutako autoa eskaintzen du. Francisco Cornejo autoeskolaren arduraduna da eta zerbitzu honek eskari handia duela azaldu du.

Zuen bereizgarrietako bat da mugikortasun urriko pertsonei gidabaimena ateratzeko aukera eskaintzen diezuela, ezta?
Bai, hala da. Gure auto izarra da, eta, egia esan, oso autoeskola gutxik eskaintzen dute zerbitzua. Guretzat harro egoteko modukoa da zerbitzu hori behar duten pertsonei eskaintzea.

Noiz hasi zineten zerbitzu hori eskaintzen?
Pandemiak tartean harrapatu gintuen, baina aurten urtea ondo hasi dugula esan dezakegu. Izan ere, eskaria oso handia da.

Zergatik da eskaria hain handia?
Azken batean zerbitzu oso berezia da eta gutxi dira Espainian zerbitzu hori eskaintzen duten autoeskolak. Gainera, auto hau bakarra da Espainian, beraz, estatu osoko bezeroekin lan egiten dugu.

Egokitzapenei esker, zein motatako pertsonek gida lezakete ibilgailu hau?
Autoa % 98ko desgaitasun fisikoa duten pertsonek gidatu ahal izateko egokitua dago. Beraz, hemiplegia, tetraplegia, paraplegia, akondroplasia eta abar barne hartzen ditu. Entzumen-urritasuna duten pertsonek gidatu ahal izateko ere pentsatuta dago. “Joystick” erako egokitzapen konplexuagoak daude, baina ez ditugu erabiltzen, oso garestiak baitira eta oso sektore txikia baita.

Behin gidabaimena eskuratua, zer ibilgailu mota gidatu daitezke?
Ibilgailu honi esker, lau lerro ezberdin lantzen ditugu. Alde batetik, gidabaimena atera nahi duten eta gidabaimena lortu aurretik ezgaitasunen bat duten ikasleak daude. Ondoren, beste bezero mota bat dugu, hau da, jada gidabaimen konbentzionala zutenak, baina, gerora, ezgaitasun mota bat garatu duten ikasleak. Horrelako ikasleei astebeteko prestakuntza intentsiboa egiten diegu, eta bertan ostatua, prestakuntza eta azterketa sartzen ditugu, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiko (TZN) medikuen balorazioa behar baita. Egokitzapen asko dituen ibilgailu bat probatzera etortzen den jendearekin ere lan egiten dugu, eta horretarako Autos Elizasurekin lan egiten dugu, egokitzapenen sektorean lehena baita. Jendea probatzera etortzen da, beren ibilgailuetan egokitzapenak egin aurretik. Negozio honen laugarren hanka da gidatze automatikorako ere egokituta dagoela, eskaria gero eta handiagoa baita.

Zer egokitzapen ditu ibilgailuak?
Desgaitasun mota bakoitzera egokitzen diren egokitzapen asko ditu. Konplexua da, horregatik kasu bakoitzaren araberakoa da. Egokitzapen zentroarekin etengabe harremanetan gaudenez, haiekin aztertzen dugu ea beharrezkoa den egokitzapen gehiago akoplatzea. Oinarrizkoena bolantean dagoen azeleragailua edo eskuan azeleragailua zein frenoa duen balazta mekanikoa izan daitezke.

Eskaintzen duzuen beste zerbitzu berezietako bat simulagailua da, ezta?
Simulagailua gure ikasle guztiek erabiltzen dute, baina bi urte daramatzagu simulagailuaren egokigailuarekin lanean. Inoiz autorik hartu ez duten ikasleentzat adaptazio gisa balio du. Falange baten anputazioren bat edo distrofiaren bat eskuetan duten ikasleen kasuan, bolantera, keinukarietara edo klaxonera nola iristen diren probatzeko balio digu. Horren arabera, satelite bat akoplatu behar ote zaion aztertzen dugu.

Ikasleei ordutegi zabala eskaintzen diezue eskolak emateko?
Bai, haien eskarietara eta beharretara egokitzen gara. Azken buruan, Espainia osoko ikasleekin lan egiten dugunez, TZNrekin koordinatzen gara. Prestakuntza intentsiboa izan dadin saiatzen gara, ondorengo desgaitasun batengatik TZNren balorazioa behar duenak autoa probatu ahal izan dezan, maneiatu eta, ondoren, trafiko zuzendaritzako medikuaren balorazioa lor dezan.

Zenbat ibilgailu egokitu dituzue egun?
Oraingoz, bakarra, ez dugu besterik behar. Nahiz eta eskaria oso handia izan, sektorea txikia da eta oraingoz batekin nahikoa da. Oso sektore esker onekoa da, eta harro gaude horrelako eskolak eman ahal izateaz.

Etorkizunean zerbitzua zabaltzeko asmoa duzue?
Beste autoeskola eta psikoteknikoekin harremanetan gaude, haiek bidaltzen baitizkigute ikasleak, beharren arabera. Marka frankizia batean bihurtu daitekeela uste dugu, eta, beraz, etorkizunean zabaldu liteke.

“Estatu osoko bezeroekin lan egiten dugu”

TUCAR.NET
AUTOESKOLA - TREBAKUNTZA-ZENTROA
Lortu gidabaimena gure klase teoriko eta praktikoekin.
%98rainoko desgaitasun fisikoak dauzkaten pertsonei gidabaimena ateratzen laguntzen diegu.
Eliza karrika 4, San Juan Plaza - 688 889 547 - info@tucar.net

Auntxa Trikitixa Eskola prest dago ikasturte berriari aurre egiteko

Auntxa Trikitixa Eskolak Trikitixa eta panderoa ikasteko aukera eskaintzen du metodo ezberdinen bitartez. 2021-2022 ikasturterako izen emate epea zabalik dago. Iñaki Aranaga irakasleak Auntxa Trikitixa Eskolan nola lan egiten den azaldu digu.

Zer nolako ikastaroak eskaintzen dituzue?
Auntxan trikitixa eta panderoa jotzen ikasteko ikastaroak eskaintzen ditugu. Ikastaroek ordubeteko iraupena izan ohi dute. Trikitixaren kasuan, ordubetean bi ikaslerekin lan egin ohi dut, bakoitza bere gelan dago eta batetik bestera tartekatzen naiz. Pandero eskolak, berriz, taldean egin ohi ditugu, 3 edo 4 ikasle elkartuz. Eskolez gainera, emanaldiak dauzkagunean, talde osoaren entsegu bereziak antolatu ohi ditugu.

Gainera, metodologia desberdinak eskaintzen dituzue prestakuntzan laguntzeko?
Bai, guztira hiru metodologia ezberdinekin lan egiten dugu. Gehien erabiltzen duguna zenbakietan oinarritutako metodoa da, azken batean, metodo azkarrena baita. Bestetik, solfeoa jakinez gero, solfeo bidez instrumentuak jotzen ikasteko aukera dugu. Azkenik, aurrez aurre jotzen ikasteko aukera dugu. Errazena eta azkarrena zenbakiena denez, horrekin hasten gara.

Ezer jakin gabe, trikitixa edo panderoa jotzen ikastea erraza da?
Musikari buruzko ezagutzarik izan ez arren, zenbakien sistemaren bitartez oso erraz barneratzen da dena. Partiturak zenbakiz osaturik daude eta, horretaz gainera, ikasle bakoitzari ikasten ari den partituraren grabazioa bidaltzen diot audioan. Horrela, abestia entzuterakoan, ikasleak argiago ikusten du zer jotzen ari den eta errazagoa zaio abestia lantzea.

Zein adinetako jendeari zuzenduak daude ikastaroak?
Ikastaroetan sei urtetik gorako haurrek eman dezakete izena. Hala ere, haurrez gainera, pertsona helduekin lan egiten dugu. Hain zuzen ere, eskolako kideen artean 70 urteko pertsonak dauzkagu. Gure ikasle gehienak gazteak dira.

Non eskaintzen dituzue zuen klaseak?
Gure eskola Irungo Anaka auzoko Aldabe Mendia Kaleko 31. zenbakian kokatuta dago eta bertan ematen ditugu gure eskolak.

Pandemiarekin eskoletako ikasle kopurua murriztu duzue?
Eskola arrunten kasuan ez, azken batean, ikasle bakoitza bere gelan sartuta dago. Eskola bereziak prestatu behar ditugunean, aldiz, lehen baino talde txikiagoetan biltzen saiatzen gara, 2 edo 3 ikasle elkartu eta gure arteko distantziak errespetatuz.

Aurrez aurreko eskolez gainera, etxean praktikatzen jarraitzea beharrezkoa da?
Bai, izan ere, ordu bateko eskolak labur geratzen dira. Ordubete horretan etxean egin dugun lana zuzentzen dugu eta hurrengo asterako egitekoak bidaltzen zaizkie. Finean, eguneroko lana da garrantzitsuena. Astean behin bakarrik jota ezin daiteke gauza handirik egin.

Instrumentuak ikasle bakoitzak eskuratu behar ditu?
Ikaslea eskoletara etortzen hasten denean hasieran, normalean, ez du instrumentu propiorik izaten. Hortaz, lehenengo egun horietarako guk uzten diogu sionutresna. Ikasle batzuek instrumentua alokatu ohi dute. Beste batzuek, berriz, senide edo lagunek jada erabiltzen ez dituzten instrumentuak erabiltzen dituzte. Gainera, egun instrumentuak alokatzeko aukera gehiago daude, lehen erosketa zen aukera bakarra.

Zer egin behar da izena emateko?
Izena eman nahi dutenek 943 618 839 edo 615 790 510 telefono zenbakietara deitu edo info@auntxatrikieskola.com helbidera idatzi besterik ez dute egin behar. Bestetik, eskolaren webgunera sartuz gero, gurekin harremanetan jartzeko bide ezberdinak topatuko dituzte. Nahiago duenak ere bulegotik igarotzeko aukera du.

Zeintzuk dira urtean zehar izan ohi dituzuen emanaldiak?
Data berezi asko dauzkagu urtean zehar. Gabonen bueltan emanaldi mordoxka bat izan ohi dugu: Olentzeroren etorrera, San Tomas Eguna, etab. Bestetik, Inauterietan, Sagardo Egunean edo Euskal Jira Egunean emanaldiak eskaintzen ditugu. Gainera, ikasturte amaieran ikuskizun bereziak eskaintzen ditugu Irungo Kontserbatorioko auditoriumean eta Oiartzungo udaletxe azpian ikasleek prestatutako abestiekin. Ikasle bakoitzari nahi duen kanta prestatzeko aukera ematen diogu, gogokoen dituzten edo modan dauden abestiak aukeratu ditzaten.

Musikariak berriro kalean emanaldiak eskaintzeko gogoz daude?
Bai, izan ere, emanaldiak ikasleari helburu bat jartzeko balio du. Emanaldiak ikasleentzako motibazio bat dira, gehiago saiatzen dira helburu finko bat dutenean.

Zeintzuk dira aurtengo ikasturterako zuen buruari jarri dizkiozuen helburuak?
Pandemiak uzten badigu, Irunen erromeria bat antolatu nahiko genuke Irungo ikasle helduenekin. Asmoa udaberrian egitea da, baina, bestela, udazkenerako utzi beharko dugu. Horretaz gain, gure ohiko emanaldiak berreskuratu nahi ditugu.

Kurtso berria

Auntxa Trikitixa eskola
TRIKITIXA eta PANDEROA
• 6 urtetatik aurrerako haur eta helduentzat zuzenduta
• Irakasteko metodo desberdinak: Zenbakiz osatutakoa, aurrez-aurre, solfeoz
943 618 839 - 615 790 510 - info@auntxatrikitieskola.com
Aldabe Mendia Kalea 31, IRUN - Elizalde Herri Eskola, Manuel Lekuona 5, OIARTZUN

Txingudi Korrikak Hendaia, Irun eta Hondarribia berriro lotuko ditu irailaren 18an

2020ko etenaldiaren ostean, Bidasoa Altetiko Taldeak aurten Txingudi Korrikaren 22. edizioa aurrera eramatea lortu du. Lasterketa irailaren 18an egingo da eta, ohiko moduan, lasterketak Txingudi eskualdea osatzen duten hiru hiriak lotuko ditu. Probak guztira 10 kilometroko luzera izango du eta Hendaiatik irten eta Irun igaro ostean, Hondarribira iritsiko da.

Aurten Txingudi Korrika aurreratu egin da, ohi baino bi aste lehenago egingo baita. Izan ere, Mugikortasunaren Europako Astea ospatzeko antolatutako jardueren barruan kokatzen da lasterketa. Bestalde, Bidasoa Atletiko Taldeak Gipuzkoako Irristaketa Federazioaren eskaera jaso du Txingudi Korrikaren barruan Patinatzaile Federatuen Gipuzkoako Txapelketa antolatu ahal izateko eta horrela egingo da.

2021eko Txingudi Korrikan parte hartzeko izen-emateak zabalik daude Kirolprobak webgunean. Horretaz gain, inskripzioa aurrez aurre egiteko aukera izango da Irungo Leire Sport eta Hondarribiko Papikop dendetan edo Bidasoa Atletiko Taldeak Palmera Montero gunean 2. solairuan 8. bulegoan duen bulegoan. Egungo prezioa 13 eurokoa da eta probaren egunean, berriz, 20 eurokoa izango da. Probaren antolakuntzaren izenean Ibon Muñozek gogoratu duenez, "aurten inoiz baino gehiago izen ematea aurretiaz egitea gomendatzen da, pilaketak saihestu eta probaren antolaketa errazteko".

Bidasoa Atletiko Taldeko Iñigo Eseverrik dortsalak probaren egunaren aurretik irailaren 17an arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara jaso ahalko direla azaldu du. Banaketa Palmera Montero gunearen kanpoan egingo da eguraldiak uzten badu, bestela, eraikinaren barnean egokitutako aretoren batean. Eseverrik azpimarratu duenez, aurtengo edizioaren berrikuntzetako bat zera da, norberak bere dortsala jaso beharko duela, Covid pasaportea eskatuko baita. Hortaz, ezingo da beste pertsonen izenean dortsalik hartu. Era berean, probaren egunean bertan irteeran arratsaldeko 14:30etatik 16:15etara dortsalak banatzen jarraituko da. Hala ere, Iñigo Eseverriren hitzetan, "ahal den neurrian dortsalak ostiralean jasotzen saiatzea eskatzen dugu".

Txingudi Korrikaren aurkezpenean Ibon Muñozek izen-ematean errepasoa egin zuen eta probaren 22. edizioan jada 350 parte-hartzailek baino gehiagok izena eman dutela gogoratu du. "Inskripzioek erritmo oso ona hartu dute, beste urte batzuekin alderatuta", adierazi du BATeko kideak. Iñigo Eseverrik gaineratu duenez, "nabari da korrikalari herrikoiak dortsal bat zintzilikatu eta lasterketetan parte hartzeko gogoa duela". Aurreko urteetako kopuruak kontuan hartuz, lasterketan 600 pertsonek parte hartzea da antolatzaileen helburua.

2021eko Txingudi Korrikaren ibilbidea Hendaiako Floridako kaian hasiko da, Irungo erdigunetik igaro eta Hondarribiko Hondartzako atletismo pistan bukatuko da. Lasterketaren azken edizioan, 2019an, ibilbidean zenbait aldaketa egin ziren Hendaiako tren geltokiko lanak saihesteko. Behin lanak amaituta, 2021ean Txingudi Korrikaren ohiko ibilbidea berreskuratuko da. Hain zuzen ere, anoa-postua 5. kilometroan kokatuko da, Irungo Colon pasealekuan. Aurtengo edizioan anoa-postuan ezingo da Txingudiko Zerbitzuen laguntza izan eta Insalusen eskutik botilatxo itxiak banatuko zaizkie parte-hartzaileei.

Aurten ez da helmuga eta irteera lotuko dituen autobus zerbitzurik izango. Aitzitik, txalupa-zerbitzua mantendu egiten da. Portu zaharretik abiatuko dira ontziak arratsaldeko 15:00etatik 16:00etara bitartean, eta bertan erosi ahal izango dira txartelak. Autoz joatea erabakitzen dutenentzat, irteeraren ondoan dagoen aparkalekuan korrikalarientzako leku batzuk gordeko dira.

Antolaketa lasterketan zehar

Korrikalarien irteera mailakatua izango da eta irteerak antolatzeko lasterkarien dortsalen koloreak erabiliko dira. Izan ere, lau kolore erabiliko dira korrikalariak lasterketa egiteko duten denbora estimatuaren arabera antolatzeko. Azkarrenak izango dira irteeratik ateratzen lehenak eta motelenak, aldiz, azkenak. Rollerren irteera 16:20tan izango da eta korrikalariena, berriz, 16:30etan. Berotzen ari den bitartean eta irten aurreko uneetan, musukoa edo maskara nahitaez erabili beharko da. Irteerako arkua igaro ondoren, korrikalariek kendu eta berekin eraman ahal izango dute, edo, bestela, irteeran kokatutako edukiontzietara bota. Helmugara iritsi bezain laster maskara erabili beharko da berriro eta, irteeran bota dutenei, musuko berri bat emango zaie.

Kontsigna zerbitzuak beti bezala funtzionatuko du eskumuturrekoekin. Bilketa eremua atletismo pistatik kanpo kokatuko da, hain zuzen ere eranskineko aparkalekuan, helmugan pilaketak saihesteko. Helmugara iritsitakoan, lasterkarien poltsa banatuko zaie eta atletismoko pista utzi beharko dute helmugako korridoreari jarraituz aparkalekuraino iristeko, eta sarituak bakarrik geratu ahal izango dira bertan. Sariak lehen bost gizonen (absolutua), lehen bost emakumeen (absolutua), Irun, Hondarribia eta Hendaiako lehen lasterkarien, lehen hiru rollerren eta lehen hiru handibikeen artean banatuko dira. COVID dela eta, helmugan ez da dutxa-zerbitzurik egongo.

Hartutako neurri eta aldaketa guztiak korrikalariei gogorarazteko, proba egin baino astebete lehenago, antolakuntzak informazio-ohar bat bidaliko die lasterketako parte-hartzaile guztiei posta elektronikoaren bidez.

Etorkizunerako erronkak

Txingudi Korrika Txikia lasterketaren larunbat goizean bertan egin ohi zen. Hala ere, probaren ezaugarriak, bildutako pertsonen kopuruak eta inplikatutako adinak egungo neurriekin eta egoerekin talka egiten dutenez, klubak Txingudi Korrika Txikiaren edizio hau bertan behera uztea erabaki du.

Ibon Muñozek azaldu duenez, "Hurrengo lasterketak antolatzen hasi gara, hala nola, Osasunaren Aldeko Milak, Gabonetako Krosa eta Irungo Maratoi Erdia 2022ko otsailerako, egoerak hala ahalbidetzen badu". Bidasoa Atletiko Taldeko Iñigo Eseverrik azpimarratu duenez, "lasterketak berreskuratu nahi ditugu, baina ez edozein preziotan, guztion segurtasuna bermatu behar dugu".

Santiagotarrak klubeko lau ordezkarik parte hartu dute Junior eta 23 Urtez Azpiko Munduko Sprint Txapelketan

Irraileko lehen asteburuan Junior eta Sub23 mailako Munduko Sprint Txapelketa jokatu da Montemor-o-Velho hirian, Portugalen. Santiagotarrak-Urbycolan taldearentzat marka historikoa hautsi da, Munduko Sprint Txapelketa batean hain parte-hartze handia izan duen lehen aldia izan baita. Txapelketa honekin, Aitor Gorrotxategik, Maialen Arsuagak, Uxue Arsuagak eta Nerea Garcíak entrenamendu denboraldi luze bati eman diote amaiera.

Zilarrezko domina Nerea Garcíarentzat

Nerea Garcíak, Teresa Tirado meridarrarekin batera, 23 Urtez Azpiko Munduko Sprint Txapelketako txapeldunordeak izatea lortu du. Zilarrezko domina etxera ekarri ostean Garcíak azaldu du, jada txapelketaren amaieratik egun batzuk igaro direnez, lortutakoa barneratzeko tartea izan duela.

Zilarrezko domina lortzeko sekretua galdetu ostean, Garcíak azaldu du "taktika kontua" dela. "Oso garrantzitsua da lehen metroetan oso azkar irtetea, ondoren, artutako erritmoari eusteko gai izateaz gainera", adierazi du txapeldunordeak. Era berean, txapelketaren aurretik podiumera iristea zaila izango zela uste zuen Nereak. "Uste nuen finalean lehiatzeko sailkapena lortzea jada pozik egoteko nahikoa izango zela".

Txapeldunorde postua eskuratzeaz gainera, Nerea Garcíak K4 500 metrokoan ere parte hartu zuen. Azkeneraino oso lasterketa borrokatua izan zen, baina irundarraren ontzia zazpigarren postuan iritsi zen helmugara. Bigarren dominarik irabazi ez arren, lortutakoa "garaipen bikoitz" gisa bizi izan duela onartu du Garcíak. "K4an distantzia olinpikoan lehiatzen gara, beraz, maila nahiko altuagoa da".

Brontzezko Arsuaga ahizpak

K2 200 metroetan, berriz, Uxue eta Maialen Arsuaga bikiek junior mailan hirugarren postua lortu zuten. Bikiek adierazi dutenez oso berezia da ahizparekin ontzi berean lehiatzea eta, are gehiago, etxera brontzezko domina "bikoitza" ekartzea. Era berean, Uxue maila mistoko K2 500 metrotan lehiatu zen Valladolideko Marcos Caballerosekin eta seigarren geratu ziren. Modalitate mistoa txapelketako berritasunetako bat izan da.

Etxean poztasunez jaso zuten Arsuaga ahizpek elkarrekin lortutako hirugarren postua. Gainera, neba aurretik piraguan ibilitakoa da eta baita haien aita ere gaztetan. "Ahizpak izanda domina lortzen dugunean poztasuna bikoitza da", adierazi dute Arsuagatarrek.
Uxue eta Maialenek azaldu dutenez, 200 metroak oso txapelketa "azkarrak" dira, beraz, piraguistek primeran elkar ulertzea ezinbestekoa da. Bikien kasuan, batak bestearengan konfiantza asko dutela onartu dute. Ahizpak izanda, ulertzekoa denez, beren momentu on eta txarrak dauzkate, elkarrekin denbora asko ematen baitute.

Arsuaga ahizpen hitzetan, dominak eskuratzeak eragiten duen pozaz gainera, horrelako lorpenak garrantzitsuak dira klubarentzat zein kirolarentzat. Izan ere, dominek kirola ezagutarazten laguntzen dute eta, ondorioz, errazagoa da jendea Santiagotarrak bezalako klubetara erakartzea kirola probatu dezaten. Hortaz, beren lorpena klubari eta emakume kirolariei laguntzeko baliagarria izatearekin pozik agertu dira biki irundarrak.

Aitor Gorrotxategiren erakustaldia

Ostiralean Aitorren txanda izan zen K1 1000 metrotan eta B finaleko bosgarren postua lortu zuen, hau da, munduko hamalaugarren postua. K1 500ean dominen finalean sartzeko zorian egon zen. Hala ere, arantzatxoa kendu zuen B finala lasterketa bikain batekin irabazi zuenean.

Dominarik irabazi ez arren, Aitorrek oso txapelketa berezia izan dela onartu du. "Klubeko lau pertsonek munduko txapelketa berean lehiatzeko aukera izatea oso berezia iruditzen zait", adierazi du Gorrotxategik. "Gure kirolak egun bakar batean aurretik landutako guztia erakustea eskatzen du", adierazi du Santiagotarrak klubeko palistak. Sprinta bezalako modalitateetan eskakizun-maila maximoa dela azaldu du Gorrotxategik. Bere hitzetan 500 metrotan palada erdi batek txapelketa irabaztea, galtzea edo finaletik kanpo geratzea eragin dezake.

Munduko Sprint Txapelketan lortutako postuari buruz Aitorrek azaldu du txapelketan erakutsitako errendimendu mailarekin pozik dagoela. Izan ere, berriki lesionatuta egon da eta berriro nazioartean lehiatzeko gai izateak poztasuna eragin dio. Kirolariak erantsi du: "momentuan beti apur bat gehiago eskatzen diozu zure buruari".

Klubaren babesa

Portugalen jokatutako Munduko Sprinteko Txapelketaren beste berezitasunetako bat publikorik gabe egin izana da. Hortaz, jarraitzaileek pantailaren beste aldetik jarraitu zituzten kirolarien txapelketak. Aitor Gorrotxategik azaldu duenez, txapelketak jarraitzeko klubean giro polita sortu zela jakin dute gerora. Lehiatu bitartean publikoaren animoak eta zuzeneko kontaktu hori faltan nabaritu dutela adierazi dute Santiagotarrak klubeko kirolariek. Klubean txapelketa jarraitzeko elkartu zirenek beren erreakzioak bideoz grabatu zituzten eta kirolarientzat oso berezia izan da urrutitik nesken dominak nola ospatu dituzten ikustea.

Txapelketa loriatsu honekin amaitu dute denboraldia Santiagotarrak klubeko esprinterrek. Orain atseden hartu eta pilak kargatu behar dituzte hurrengo denboraldian daukaten onena ematen jarraitzeko. Hala ere, klubeko kirolari guztiak ezin dira oraindik lasaitu. Urriaren hasieran Errumaniako Munduko Maratoi Txapelketan Martin Miranda, Eider Amundarain eta Unai Amostegi maratoilariak lehiatuko baitira.

FOTOGRAFIA ESTUDIO GO VER™

Fernando Vergara
argazkilaria
Letxumborro hiribidea 100,2º
20305 Irun
943 840 113 - 647 930 484
www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com

Zertaz egiten zen barre duela 2000 urte?

Museoak hainbat tresna eta eguneroko bizitzan erabiltzen ziren oinetako, ontzi, txanpon… eta abar erakusten dizkigu. Gurean dagoen Oiasso Museoa gainera, pieza arkeologiko ugari biltzeaz gain, organikoak diren piezen erakustoki garrantzitsua da, eta 2000 urte lokatzetan gorderik biziraun duten zapata zola, gerriko, oihal zati, egurrez egindako tresnak eta abar ere baditu erakusgai. Horiei esker, meatzariek edota arrantzaleek nola lan egiten zuten jakin dezakegu, baita zapatari, jostun, tabernari, sare konpontzaile, arotz edo etxebizitzak eraikitzen zituztenei buruzko berriak ere. Den–denek, seguruenik, lan egiteaz gain, kontu kontari aritzeko tartea ere izango zuten, ziur. Eta musika edo abestiak ere eguneroko bizitzaren zati garrantzitsua izango ziren, nola ez! Baita zirkua edo antzerkia ere, jakina! Aisialdia oso garrantzitsua zen erromatar garai hartan, baita Oiasson ere.

Erromatarrek asko maite zituzten gizaki eta animalien arteko borrokak. Horien krudeltasunak erakusten digu balioek urte guzti hauetan jasan duten aldaketa. Erromatar garaian ez zeuden gaizki ikusita horrelako borrokak, esklaboen bizitzak ere ez zuen gehiegi balio. Horrelako kasuetan gainera erromatarrek ez zuten kulpa edo gupidaren arrastorik, ikuskizunak ziren, eta denek zekiten zeintzuk ziren jokoaren arauak.

Horregatik askotan galdetu izan ohi da, atzera egingo bagenu, bi mila urteko jauzia egiterik bagenu, zer topatuko genukeen erromatar bizitza hartan, eta seguruenik guretzat deigarriena horixe litzateke, gizaki eta animalien arteko borroka bortitzekiko zaletasuna. Esklaboak eta kasu askotan haiekiko tratua ere guretzat ulergaitza izango zen. Duela 2000 urte esklaboak "hitz egiten zuten animaliak" zirela esaten baitzen. Eta esklabo gehienak gainera ez ziren gerran atxilotutako etsaiak izaten baizik eta familia buruek onartzen ez zituzten haurrak izaten ziren, alegia, abandonatzen zituzten umeak. Hau ere guretzat gogorregia.

Zaila izango zen ere guretzat orduko usain eta zikinkeria jasatea. Edo sexuarekiko zuten ikuspegi askea. Edo ezgaitasuna zutenekiko gupidarik eza.

Hari horretatik jarraituz, imajina dezakegu erromatar garaian tabernetan edo lanean ari ziren bitartean, edo merkatuan kontu kontari aritzen zirenean zer nolako umorea zuten eta zertaz barre egiten zuten. Jakin, ez badakigu ere, ezaguna da garai hartan komediarekiko zaletasuna. Antzinako Grezian, tragediak nagusi ziren bezalaxe -nahiz eta komediek ere bere lekua izan-, erromatarren garaian komedia zen nagusi, eta umorea! Plauto handiaren antzezlanak etengabe antzezten ziren, baina antzerki handiaz gain, edozein herrixka eta azokatan kontalari humoretsuek txanpon edo janari truke xelebrekeriak kontatzen zituzten. Gaur egungo monologolariek egiten duten antzera. Kalean antzerkia ikustea ohikoa zen. Baina garai hartan zertaz egiten zuten barre? Batez ere, sexu kontuak ziren gogokoak, eta nola ez, adarrak jartzea:

Lagun batek besteari:
- *Zorionak! Zure emazteak haurra eduki duela jakin dut!*
- *Bai -erantzun zion lagunak haserre- zu bezalako lagunei esker!*

Edota aita eta semea neska berdinaren atzetik ibiltzea… Edo senarrak muxu ematean sortzen duen atzerakada bere hats txarragatik.

Hats txarra duen gizon batek emazteari galdetzen dio:
- *Zergatik gorrotatzen nauzu?*
- *Maite nauzulako!*

Besazpiko usaina ere txiste aitzakia izan daiteke… esate baterako garai hartakoa da txiste hau:

Bi emakumek gizon bera maite zuten, batek hats txarra zuen, besteak besapean kiratsa, eta lehenengoak esan zion:
- *Emaidazu muxu bat*
- *Emaidazu besarkada bat -esan zion bigarrenak*
- *Zer egin dezaket -galdetu zuen gizonak- bi gaitzen artean nago!*

Jeloskortasunak sortutako borrokek ere barrerako aukera ematen zuten. Eta nola ez aberats berrien handinahikeria, jakintsuen harropuzkeria, soldatuen baldarkeria, negozioetako tranpak…
"gizon batek besteari haserre:
- *Saldu didazun esklaboa hil egin da!*
- *Ene bada, ez da izango, nirekin egon zen bitartean ez zuen horrelakorik inoiz egin!"*

Philogelos, IV. mendeko txiste bilduma da, eta bertan era honetako txisteak topatu ditzakegu, baita Pompeiako hainbat graffitietan ere. Ospetsua da honako hau:

- *Quinok Tais maite du.*
- *Ze Tais?*
- *Tais begi bakarra.*
- *Taisi begi bat bakarrik falta zaio, Quinori berriz biak!*

DUNBOA LH1

ELHADJI NDONG, 1.B

Denbora-pasak

7 hitz: Hoteletako instalazioak

D	I	R	Y	A	P	T	V	G	Y	J	B	N	L
U	E	A	B	O	R	R	A	G	O	M	A	R	A
J	A	B	C	G	M	A	R	G	O	D	S	J	W
H	G	Y	Q	R	K	O	N	P	A	S	O	S	E
I	P	O	Z	Z	N	K	I	J	Q	Q	P	A	N
S	K	E	O	R	X	P	Z	N	G	Y	G	H	R
Y	T	B	D	B	W	B	V	R	R	F	M	V	O
K	O	L	A	E	R	R	E	G	E	L	A	M	I
Q	F	S	Z	B	N	S	R	V	P	Q	Y	L	I
A	W	Y	V	D	J	I	A	R	K	A	T	Z	U
Y	Z	Q	I	U	C	Z	U	R	R	T	G	T	E
V	S	G	T	X	O	R	R	O	S	K	I	L	O
N	X	G	R	Y	S	I	G	T	F	C	F	C	Q
G	N	F	O	O	S	G	J	Q	H	W	U	I	G

Arkatz, borragoma, erregela, kola, konpas, margo, txorroskilo.

	2		6		7		4	5
		3		5				1
	6	5			8			2
	7	9		8			2	
2								
	1				3	8		
	3	6				2		9
				2				3
		2	3	6	4			

EUSKARAZ, IRUNEN BARRENA

Almandozko baserri batin ollo bat faltatu

Almandozko baserri batin ollo bat faltatu

Almandozko baserri batin ollo bat faltatu.

Itxi artako andriak barririan suspetxa.

Eken mutikua etorri zen itxera yostetara. Malizi aundikin piko bat eskutan artu, mutikuri man bartziola eta errantzion:
-Aguxtiñ, atzo besta goorra zinueten?

Eta mutikuak:
-Bai andre.
-Txitxi goxuk yan zinuezten?
-Bai andre.
-Eta zer yan zinueten.
-Ollua.
-Ollua yan zinueten?
-Bai andre.
-Eta lumak ze egiñ zinuezten?
-Attak eta amak suan erre.
-Ala iñtzieten? Tori, tori, Aguxtiñ, zuretako piku au. Olaxe ikasi zun andri arek barridikuk ebatsi zutela ollua.

Oronoz Mugaireko M.G.B.ri jasoa (1960-IV-23). (El Bidasoa, 1960-V-7)

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga
Euskaraz, Irunen barrena

ELATZETA LH6

PLASTIFISHAREN KOSTERA

2019-2020 ikasturtean, Elatzetako 5. mailakoek proiektu berritzaile batean parte hartzeko aukera izan genuen, "Plastifisharen kostera" proiektuan alegia. Mater Ontzi Museo Ekoaktiboaren eskutik heldu zen, Ternuaren laguntzarekin. Gipuzkoako kostaldeko hondakinen arazoei aurre egiteko proiektua da eta bere helburu nagusia, itsas hondakinen arazoan herritarrak inplikatzea litzateke. Horregatik, arazoaren hasierara jo genuen, hau da, zaborra itsasora iritsi baino lehen, ibaietan pilatzen da. Eta horretarako, ekintza ezberdinak egin genituen eskolan:

- Gelan gaiaz jardun eta errealitatea ezagutu.
- Bidasoa ibai arroan hondakinak bildu, sailkatu eta pisatu.
- Aurkitutako materiala erabiliz 2020-2021 ikasturteko logo lehiaketan parte hartu.

Aurtengo ikasturtean, eskolatik gertu dugun Altzubideko errekara joan ginen, bertako hondakinak jasotzera. Ordubete eskas batean, 25 kilogramo zabor bildu genituen.

Oso gogorra izan da errealitatea zein den ikustea, baina behintzat Elatzeta ikastetxeko ikasle zein irakasle sentsibilizatzeko balio izan du proiektuak. Gainera, parte hartzeagatik, Ternuak material berziklagarriekin egindako "Plastifisharen kostera" kamiseta bana jaso zuten ikasleek. Urtero, Altzubideko erreka garbitzera joateko konpromezua hartu dugu. Ea denon artean gure kostaldea hobeto zaintzeko gai garen!

Ikasleen inpresioak:

- Ez genuen espero, hainbeste zabor bilduko genuenik!
- Zein zikina den jendea!
- Nola bota dezakete guzti hori errekara?
- Hemendik paseatzen dabilen jendeari, ez dio lotsik ematen hau horrela egoteak?
- Ez badugu planeta guk zaintzen, zeinek zainduko du?

Argazkien azalpenak:

1. Prest garbiketari hasiera emateko.
2. Altzubideko errakaren bazterretan zeuden hondakinak jasotzen.
3. Jasotako hondakinak sailkatzen eta pisatzen.

Asier Burguete, A&B Shows:

"Guk gure ikuskizunak esperientzia gisa deskribatzen ditugu"

"Poz-pozik gaude gure lehen urtea izateko emanaldi dezente izan ditugulako"

"Gu Gabonetarako ikuskizunak antolatzen hasi gara jada"

A&B Shows ikuskizunaren eta entretenimenduaren alorrean lan egiten duen enpresa irundarra da. Pandemiaren garaian hasitako proiektua izan arren, kulturaren munduan tarte bat irekitzea lortu du jada. Asier Burguete irundarra da proiektuaren bultzatzaileetako bat eta A&B Showsek eskainitako ikuskizunen berri eman du.

Zergatik erabaki zenuten A&B bezalako proiektu bat hastea?
Go!azenen lanean hasi nintzen eta, hor bukatu nuenean, PortAventurako ikuskizunetan lan egin nuen. Bertan lagunak egin nituen eta ikuskizunarekin eta animazioarekin zerikusia zuen zerbait sortzea bururatu zitzaigun. Horrela, Euskal Herrian hutsune bat zegoela ohartu ginen, ikuskizunak kontratatzerakoan askotan kanpoko enpresak kontratatu ohi dira eta. Ni irundarra naizela aprobetxatuz, Euskal Herrian mota horretako enpresa bat sortzea erabaki genuen. Beraz, animazio eta ikuskizunak eskaintzen dituen enpresa bat gara.

Nolakoak izan dira ibilbide berri honen hasierako hilabeteak?
Jende askok erotuta gaudela esan digu pandemia garaian kulturarekin zerikusia duen proiektu bat abiatzeagatik. Egia da, pandemia erdian enpresa bat sortzea zaila dela. Dena den, udaran ikuskizun dezente egin ditugu.

Covid-19ak kulturaren sektorea kaltetu duela atzeman duzue?
Bai. Egia da udalek edo elkarteek oraindik ekitaldiak antolatzeko orduan ziurgabetasunak dituztela. Nabari da orain ez dagoela lehen adinako kultur ekitaldirik.

Enpresaren egoitza Irunen egoteaz gainera, euskararen erabilera sustatzeko konpromisoa hartu duzue?
Bai, hori da. Lehen egunetik ideia hori argi izan genuen. Euskal Herrian ikuskizun asko euskaraz egiten diren heinean, hizkuntzarekiko konpromiso hori hartu nahi izan genuen. Hala ere, ikuskizunak gaztelaniaz ere eskaintzen ditugu, hemendik kanpo gure zerbitzuak eskaintzeko aukera izateko.

Erraza da kulturan euskararen erabilera sustatzea?
Bai, udal gehienek euskarazko ikuskizunak eskatzen dizkigute, hizkuntzaren erabilera bultzatzeko. Nire ustez kulturan euskara erabiltzea oso garrantzitsua da. Eskolan ikasten den hizkuntza bat izatetik haratago, ikuskizunak egiteko ere oso egokia da. Hortaz, guk ere gure bultzada eman nahi diogu.

Zeintzuk osatzen duzue lantaldea?
Ni zuzendaria naiz. Horretaz gain, gurekin lankideak eta lagunak diren beste pertsona batzuk dauzkagu. Bata, adibidez, Galiziakoa da, besteak, Kataluniatik etorritakoak. Hala ere, gure jarduera hemen zentratu nahi dugu, inguru honetan lan egin nahi dugu.

Nolakoak izan dira laneko lehen hilabeteak?
Oso positiboak izan dira. Poz-pozik gaude gure lehen urtea izateko emanaldi dezente izan ditugulako, Covid-19arengatik baldintzatuta egon arren. Hondarribian estreinatu ginen ekainean eta dena oso ondo joan da.

Eskainitako emanaldietako bat kalejirak dira. Nola egokitu dituzue kalejirak pandemia garaira?
Udal askok oraindik ez dituzte horrelako emanaldiak kontratatu nahi, baina beste batzuk kalejirak kontratatzera ausartu dira. Kalejiren barnean emanaldi desberdinak eskaintzen ditugu. Ean, Bizkaian, Udafest izeneko kalejira egin genuen. Udafest ikuskizunean jendea animatzeko malabareak egiten ditugu, akuilumakuiluetan ibiltzen gara musikarekin, eta abar. Kasu horretan, herri txiki bat zenez pertsonen arteko distantziak errespetatzea erraza izan zen.

Bestetik, Wonderland Experience ikuskizuna duzue. Zertan datza?
Guk gure ikuskizunak esperientzia gisa deskribatzen ditugu. Ez da soilik ikuskizuna ikustea. Wonderland Experience guk sortutako lehen ikuskizuna izan zen eta, horren barnean, ipuin kontalaria, zirku ikuskizuna eta kalejira dauzkagu. Beraz, kontratatzen gaituenak zer motatako ikuskizuna nahiago duen aukeratu dezake. Multzo horretako ikuskizun guztiak Wonderland eta Aliciaren munduan girotuta daude.

Txikidantz, berriz, musikarekin lotura estua duen emanaldia da?
Bai, Txikidantz nik 2017an sortu nuen proiektu bat da, Irungo auzoetan diskofestak antolatzeko. Aurten, pandemia dela eta, egoera egokitu eta diskofestetan publikoak eserita egon behar izan du. Txikidantzen hegazkin bidai bat proposatzen dugu, munduko herrialde desberdinetako musika ezagutzeko. Horri esker, aulki batean ere dantzatu daitekeela ikasi dugu, eskuak eta burua mugituz.

Horretaz gain, proposamenak jasotzeko prest zaudete?
Bai, ezkontza, jaunartze edo festa pribatuetan gure emanaldiak eskaintzeko prest gaude. Orain arte kontatutako ikuskizunak estreinatu ditugunak dira, baina bestelako emanaldiak ere prest dauzkagu. Adibidez, Arabiako Gauak izeneko ikuskizunak dauzkagu, Errege Magoen kabalgatarako edo kalejirak egiteko egokiak direnak. Orain Gabonetara egokitutako ikuskizunak prestatzen hasi gara.

Zein publiko motari zuzenduta daude zuen ikuskizunak?
Gehienak familia giroko ikuskizunak dira, haur eta gazteentzat pentsatuak daudenak. Pandemia bukatzen denean, diskoteketan animazioak edo gaueko ikuskizunak antolatu nahiko genituzke.

Zein izan da publikoaren erantzuna?
Erantzuna nahiko positiboa izan da. Jendea ikuskizun gehienetan eserita dago eta maskararekin aurpegi osoa ikusi ez arren, publikoaren algarak entzun ditugu eta pozik gaude horrekin. Publikoaren artean oraindik beldurra nabaritzen dugu emanaldietara datorrenean, askotan eremu itxietan egiten direlako. Pixkanaka beldur hori desagertuko dela uste dugu eta lasaiago etorriko direla.

Jarduera asko dauzkazue kontratatuta hurrengo hilabeteetarako?
Udazkena iristearekin batera, ikuskizunak esparru itxietan antolatzen hasiko dira. Lehen esan dudan bezala, gu Gabonetarako ikuskizunak antolatzen hasi gara jada. Urte amaierarako zer ikuskizun mota antolatu ahal izango diren ikusteko zain gaude. Aurretik Hallowen bezalako data aipagarriak ditugu, baina egun horietan ez dago mugimendu handirik. Beraz, datozen hilabeteetan zer gertatuko den ikusiko dugu.

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

iGazte itxita

Antzerki tailerrak Oiasso Museoan

Helduentzako eta haurrentzako tailerrak Irungo Oiasso Museoan.

Izen-ematea: Irailaren 7tik aurrera.

- Helduentzako antzerki tailerrak (21 urtetik aurrera).

- Irakurketa dramatizatuen tailerra helduentzako (18 urtetik aurrera).

- Haurrentzako antzerki-tailerrak (8 eta 13 urte artekoentzat).

Zure plaza erreserbatu eta parte hartu!

Harremanetarako: 943 63 93 53 telefono-zenbakia edo info-oiassomuseo@irun.org helbidea.

OIASSO MUSEOA

Ahalduntze eskolaren tailerrak

Ahalduntze eskolako ikastaroen bidez, prestakuntzarako, hausnarketarako, eta biltzeko eremu bat sortzen da. Helburua da jakintza eta ongizate pertsona aberastea eta horrela, adin eta interes desberdinetako emakumeei ahalduntze pertsonaleko eta kolektiboko prozesuan aurrera egitea ahalbidetzea.

Saioek metodologia praktikoa eta partizipatiboa dute.

Eskainitako ikastaroak ondorengoak dira:

- Loratzen: Ikastaro honetan, egunerokoan gertatzen zaizkigun gertakariak ereintzat hartzen ikasiko dugu, prestakuntzaren amaieran loratu eta gure alde guztiak balioestea hel gaitezen, ez bakarrik horietako batzuk.

- Mindfulness II: Tailer honetan mindfulness-aren tresnetan sakonduko dugu, gorputzari eta zailtasunari probetxua ateratzeko.

- Gure aurreko emakumeak: Emakumeen ahalduntze-lanaren barruan, behar-beharrezkoa da norberaren historia ezagutzea, emakumeek gizartean izan zuten rol anonimo eta ezezaguna ezagutzea, eta baita gure familia-leinuko emakumeen historia ezagutzea ere.

- Zugandik (Argazkilaritza tailerra): Mugikorraren bitartez argazkiak ateratzen ikasteaz gain bakoitzaren begirada, sentimenduak eta egoerak kanalitzatzeko edota irudikatzeko tresna izango dira argazkiak.

Izen ematea: Irailaren 3tik 7ra Irungo Udalaren webgunean.

Kiroldegietako eskaintza urteko azken hiruhilekorako

Azken Portu eta Artaleku kiroldegiek prest dute urri, azaro eta abendurako ikastaroen eskaintza.

Ikastaroen iraupena: 45 minutu (edukiera mugatua eta kiroldegia eta materiala garbitzeko beharrezko den denborarengatik.

- Artalekun: 119 ikastaro eta 1.044 toki.

- Azken Portun: 131 ikastaro eta 1.111 toki.

Proposamenak: Igerilekuko eta aretoko betiko ikastaroak izango dira. Zumba, tonifikazioa, aerobic, pilates, wellness, cycling... Ikastaroak; bizkarra osasuntsu mantentzekoak; ariketa abdominal hipopresiboak egitekoak; etab.

Izen ematea: Ez da izango aurretiaz izena emateko eperik, eta ez da hartu beharko hitzordurik. Izen emateak zuzenean egingo dira irailaren 9ko 08:00etatik irailaren 15era bitartean abonatuentzat, eta irailaren 16an abonatu ez direnentzat, udal webgunean. Igeriketa probak irailaren 4an egingo dira, 11:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 17:30era bitartean, Artaleku kiroldegian.

GIZALDE
GIPUZKOAKO BOLUNTARIOTZA

Non egin dezaket boluntario lana?

Entitateak, boluntariotza programak, boluntariotza premiak... www.gizalde.eus/ webgunean aurkituko dituzu.

Gipuzkoako irabazi asmorik gabeko elkarteetan boluntarioki egin daitezkeen ekintzak asko dira.

Gizalderen webgunean horietako batzuk aurkituko dituzu, eta Gizalderen bulegora (Autonomia kalea 19, behea, Donostia) gerturatuz gero, elkarteek dituztenn boluntario behar gehiagori buruzko informazioa emango zaie interesdunei.

Harremanetarako: 943428013 edo 685753396 (WhatsApp ere bai) telefono-zenbakiak edo gizalde@gizalde.eus



Irailak

18

Film-laburra

Zer: "M" film laburraren aurkezpena.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Sarrerak: Gonbidapenarekin.

Gonbidapenak: Sarrerak erosteko webgunean edo Irungo turismo bulegoan.

Hizkuntza: Euskaraz, azpitituluak gaztelaniaz.

19

GiraBira

Zer: Irungo parkeak (ber)ezagutzeko itzulia.

Non: Soroxarta parkea.

Ordutegia: 10:30etatik aurrera.

Ekintzak:

- 10:30etan tailerrak.

- 12:30etan kontzertua.

19

Dantz Point

Zer: Musika elektronikoko ikuskizuna.

Non: Etorbideko zubian.

Ordua: 19:30etan.

Sarrera: Librea, baina lekuak mugatuak dira.

24

Dokuirun

Zer: Marina Lameirok egindako Dardara dokumentalaren emanaldia.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Sarrera: Gonbidapenarekin.

Hizkuntza: Elebitan.

Iraupena: 98 minutu.

25

Familientzako antzerkia

Zer: Tartalo kondaira , Logela Multimedia antzerki konpainiaren eskutik kontatua.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 17:00etan.

Prezioa: 4,50 euro.

Hizkuntza: Euskaraz.

26

Kontzertua

Zer: Irun Hiria Musika Bandaren kontzertua.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 12:30etan.

Sarrera: Gonbidapenarekin.

Denbora-pasen emaitzak



D	I	R	Y	A	P	T	V	G	Y	J	B	N	L
U	E	A	B	O	R	R	A	G	O	M	A	R	A
J	A	B	C	G	M	A	R	G	O	D	S	J	W
H	G	Y	Q	R	K	O	N	P	A	S	O	S	E
I	P	O	Z	Z	N	K	I	J	Q	Q	P	A	N
S	K	E	O	R	X	P	Z	N	G	Y	G	H	R
Y	T	B	D	B	W	B	V	R	R	F	M	V	O
K	O	L	A	E	R	R	E	G	E	L	A	M	I
Q	F	S	Z	B	N	S	R	V	P	Q	Y	L	I
A	W	Y	V	D	J	I	A	R	K	A	T	Z	U
Y	Z	Q	I	U	C	Z	U	R	R	T	G	T	E
V	S	G	T	X	O	R	R	O	S	K	I	L	O
N	X	G	R	Y	S	I	G	T	F	C	F	C	Q
G	N	F	O	O	S	G	J	Q	H	W	U	I	G

8	2	1	6	3	7	9	4	5
7	4	3	9	5	2	6	8	1
9	6	5	4	1	8	7	3	2
3	7	9	5	8	6	1	2	4
2	5	8	7	4	1	3	9	6
6	1	4	2	9	3	8	5	7
4	3	6	8	7	5	2	1	9
5	8	7	1	2	9	4	6	3
1	9	2	3	6	4	5	7	8

BEZERO BERRIAK LORTZEN LAGUNTZEN DIZUGU

837COMUNICACION.COM